

2021ean, ezkontzak, Euskal AEn, % 58,4 igo dira, 2020arekin alderatuta

2019aren aldean, % 14 egin dute behera

Eustaten datuen arabera, Euskal AEn, 6.427 ezkontza izan dira guztira, 2020an baino % 58,4 gehiago, urte horretan COVID-19aren pandemia eta murrizketak izan baitziren. Euskal AEn bizi diren sexu desberdineko pertsonen arteko ezkontzak kontuan hartuta, 6.161 izan dira, aurreko urtean baino 2.250 ezkontza gehiago.

Ezkontza kopuruak gora egin du, baina, halere, oraindik ez da lehengo kopuruetara bueltatu, 2019arekin alderatuta; 2021ean, % 14ko beherakada dago oraindik ezkontza kopuruan.

Euskal AEko ezkontzak, ezkontza-hilabetearen, inskripzio-lurraldearen, bizileku-lurraldearen eta ezkontza-motaren arabera. 2021

	2021	2020		2019	
	KOP	KOP	Gehikuntza (%)	KOP	Gehikuntza (%)
Ezkontza	6.427	4.057	58,4	7.471	-14,0
Ezkontza-hilabetea					
Urtarrila	286	333	-14,1	228	25,4
Otsaila	247	363	-32,0	290	-14,8
Martxoa	324	229	41,5	497	-34,8
Apirila	404	16	2.425,0	422	-4,3
Maiatz	577	89	548,3	755	-23,6
Ekaina	839	359	133,7	996	-15,8
Uztaila	961	577	66,6	1.022	-6,0
Abuztua	342	250	36,8	501	-31,7
Iraila	862	667	29,2	1.077	-20,0
Urria	782	583	34,1	813	-3,8
Azaroa	463	295	56,9	518	-10,6
Abendua	340	296	14,9	352	-3,4
Inskripzio-lurraldea					
Araba / Álava	908	539	68,5	989	-8,2
Bizkaia	2.888	1.888	53,0	3.410	-15,3
Gipuzkoa	2.147	1.355	58,5	2.458	-12,7
Euskal AEtik kanpo	484	275	76,0	614	-21,2
Egoitza duen lurraldea					
Araba / Álava	949	546	73,8	1.014	-6,4
Bizkaia	2.987	1.965	52,0	3.560	-16,1
Gipuzkoa	2.206	1.376	60,3	2.528	-12,7
Euskal AEtik kanpo	285	170	67,6	369	-22,8
Ezkontza-mota					
Sexu desberdineko pertsonen artean	6.161	3.911	57,5	7.265	-15,2
Gizon artean	106	50	112,0	86	23,3
Emakume artean	160	96	66,7	120	33,3

Data 2022ko Azaroaren 2a

Iturria: Eustat. Ezkontzen Estatistika

Euskal AEko ezkontza-tasa mila biztanleko 2,7 ezkontzakoa da; kopuru hori Espainiakoa (‰ 3,1) baino baxuagoa eta Europar Batasunekoa (27 herrialdeak) baino baxuagoa da, zeina, 2020an, eskuragarri dagoen azken datuaren arabera, ‰ 3,2koa baitzen.


Gizon ezkongabeen ezkontzaren batez besteko adina 38 urtetik gorakoa da

Ezkontzeko adinak, sexu desberdineko bikoteetan, behera egin du 2021ean, 2020aren aldean; izan ere, gizon egoiliar ezkongabeak 38,8 urterekin ezkondu dira, batez beste, eta emakumeak, 36,6 urterekin. 2020an, 39,2 urterekin eta 37,1 urterekin, hurrenez hurren.

2019arekin alderatuta, ezkongabeak ezkontzeko batez besteko adinak gora egin du; izan ere, urte horretan 37,7rekin eta 35,7rekin ezkontzen ziren. Bi ezkontideen arteko adin-desberdintasunak bere horretan dirau 2 urte inguru.

Sexu desberdineko pertsonen ezkontzetan, 2021ean behera egin du ezkontide dibortziatuen kopuruak. Aurretik dibortziatutako senar-emazteen ehunekoa % 16,3koa eta % 16,8koa izan da, hurrenez hurren; balio horiek 2020koak baino baxuagoak izan dira (% 19,4 eta % 18,6, hurrenez hurren).

Sexu desberdineko pertsonen arteko lehen ezkontzako adina Euskal AEn, sexuaren arabera



Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Euskal AEko ezkontzetatik, 266 sexu bereko pertsonen ezkontzak izan dira, 2020an baino % 82,2 gehiago, orduan 146 izan baitziren, eta 2019an baino % 29,1 gehiago. 2012tik, emakumeen arteko ezkontzak gizonen artekoak baino gehiago izan dira; azken urtean, sexu bereko pertsonen ezkontzen % 60 izan dira.

Sexu bereko bikoteen ezkontzetan, gizon egoiliar ezkongabeak 2021ean 44,8 urterekin ezkondu ziren eta emakumeak, 37,1 urterekin. Bikote horietan aurretik dibortziatutako gizonen ehunekoa % 7,4koa da eta emakumeena, % 10,6koa.


2021ean, 10 ezkontzatik 9 zibilak izan ziren

Ezkontza zibilak ezkontzen % 90,6 dira, baina ehuneko horrek % 3 egin du behera, 2020aren aldean. Duela 30 urte, 1991n, ezkontza zibilak ezkontza guztien % 25,1 baino ez ziren.

Egoitzari dagokionez, ezkontzen % 95,6k Euskal AEn du bizilekua eta % 4,4k bertatik kanpo, eta kanpo dutenen helmuga nagusiak Madril (56), Kantabria (54) eta Burgos (52) dira, bai eta Nafarroa (27) ere.

Ostiraletan larunbatetan baino ezkontza gehiago ospatu dira

Ezkontza zibilen kopurua nabarmen handitu izanak eta, 2009tik aurrera, haien ia erdia ostiraletan ospatzeak eta ezkontza erlijiosoak nabarmen behera egin izanak ekarri du, 2017tik aurrera, Euskal AEn, ostiraletan larunbatetan baino ezkontza gehiago ospatu direla (% 49,1 eta % 31,2, hurrenez hurren).



Sexu desberdineko pertsonen ezkontzen % 23,6an, ezkontideetako bat, gutxienez, atzerritarra da

Ezkontideen nazionalitateari dagokionez, 1.451 ezkontzatan (kopuru osoaren % 23,6), ezkontideetako bat, gutxienez, atzerritarra da; 2020an, % 27,2 eta 2019an, % 20,4. Ezkontza horien % 43,9an, emaztea da atzerritarra; % 19,6an, senarra, eta % 36,5ean, bi ezkontideak dira atzerritarrak.

Emaztea soilik atzerritarra duten ezkontzen kasuan, kasuen % 73,2 Amerikako herrialde bati dagozkio (nagusiki, Kolonbia, Nikaragua eta Brasil), eta, ondoren, % 18,4 europarra da (nabarmentzekoak Errumania eta Frantzia).

Gizona soilik atzerritarra den kasuetan, honela banatzen da: Amerikako herrialdeak (% 38,2), nagusiki Argentina eta Kolonbia, eta Europakoak (% 34), nagusiki Alemania, Italia, Portugal eta Frantzia, besteak beste. Nabarmentzekoa da, era berean, kasuen % 13,7 marokoarrak direla.

Bi ezkontideak atzerritarrak dituzten ezkontzetan, gehienak amerikarrak dira, baina ehunekoa handiagoa da emakumeetan (% 67,1) gizonetan (% 57,3) baino. Nazionalitateari dagokionez, bigarren kontinentea Afrika da: gizonen % 26,8 eta emakumeen % 23,4.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62